

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA**Foru Gobemu Kontseiluak 2026ko abuztuaren 4ko ohiko bilkuran onetsitako ebazpenen laburpena****— Foru Dekretuak:****NEKAZARITZA SAILA**

29/2026 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 17ko 23/2024 Foru Dekretua aldatzea, zeinaren bidez onetsi ziren Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta beste kudeaketa konpromiso batzuk hartzeagatik laguntzen oinarri arautzaileak, eta onestea 2026rako deialdia.

30/2026 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 31/2023 Foru Dekretua aldatzea, zeinaren bidez onesten baitira muga naturalak edo bestelako muga espezifikoak dituzten eremuetarako laguntzen oinarri arauak eta 2026rako deialdia.

— Erabakiak:**ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

530/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Giroa SAU enpresari Arabako Lurralde Historikoko Artxiboko gordailuen instalazio termikoa ordeztzeko hornidura kontratua esleitzea, 188.492,68 eurotan (BEZa barne) eta bost hilabeteko epean entregatzeko.

531/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios IZENPE SARI egindako enkargua, euskal administrazio publikoen konfiantzazko zerbitzuak emateko eta elkarreragingarritasun eta segurtasun nodorako (NISAE).

532/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea irabazteko xederik gabeko entitateek enplegurako 2026rako prestakuntza emateko (zabalkunde jardunaldiak) Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 24ko 171/2026 Erabakiaren bidez deitutako laguntza lerroa ebazteari.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

533/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea aurrekontu aldaketarako zenbait espedienteri, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak hala eskatuta.

534/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea M_T00/2026/0000000077 kreditu transferentziaren espedientea, 1.536,92 eurokoa, funtsez hornitzeko "AP-68ko bidesarirako dirulaguntza" eta "AP-1eko tarifa finkoa" izeneko partidak, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak hala eskatuta.

535/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea hainbat entitateri Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Apaizgaitegiko Latindarren Pabiloiko lokalak erabiltzeko doako lagapena egitea.

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

536/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak kontribuzio berezia ezartzeari 2026ko ekitaldirako, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua ezarri, hobetu edo handitzeko.

537/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Lapuebla de Labarcako Udalari dirulaguntza zuzena ematea, udalerrri horretako hainbat jolasgune estaltzeko.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

538/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Ezestea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 9ko 356/2026 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa (Esp. 01024002-2026/00124).

539/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Behin-behinean onestea Caicedo Yusoko hornidura Leciñana del Caminoko biltegiarekin lotzeko eraikuntza proiektua, desjabetzeak ukitutako ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda eta jendaurrean jartzea.

540/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Baiestea Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 17ko 85/2026 Erabakiaren bidez hasitako kontratazio espedientea eskuratzeko eskaera.

541/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Behin-behineko onepena ematea Alegría-Dulantzikoko saneamenduko kolektorearen I. zatia (Alegría-Oreitia) eraikitze proiektuari, onura publikoaren adierazpenari eta ukituriko ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta indibidualizatuari.

542/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Behin-behineko onepena ematea Musco, Carralagroño eta Carravalsecako aintziren ingurumena lehengoratzeko proiektuari (ES2110021 KBEa, Guardiako Aintzirak, Natura 2000 Sareko naturagune babestua), onura publikoaren adierazpenari eta ukituriko ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta indibidualizatuari.

543/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Uraren Euskal Agentziarekin, Gasteizko Udal Urak SAUrekin (AMVISA) eta Urbide Arabako Ur Partzuergoarekin hitzarmen bat sinatzea, Zadorraren Unitate Hidrologikoan dauden Arabako udalerrietako hornidura eta saneamendu azpiegituren alternatibak aztertze.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

544/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Adjudikatu gabe uztea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 9ko 363/2026 Erabakiaren bidez onetsitako Etxebidea egoitza eraberritzeko eta handitzeko obra kontratatze prozeduraren lizitazioa.

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

545/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea foru errepideen sareko bide segurtasuna hobetzeko lanak (prebentzio eta arintze jardunak 2026) prozedura irekiaren bidez kontratatze espedienteari. Aurrekontua: 655.895,23 euro (BEZa barne); gauzatzeko epea: hamabi hilabete.

546/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea prozedura irekiaren bidez, A-3641 errepidea egokitzeko eraikuntza proiektua idazteko zerbitzua kontratatze espedientea, 48,44 kp-tik (Ibaguengo A-624 errepidearekiko elkargunea) 58,29 kp-ra (probintziaren muga Bizkaiarekin Okondon), 330.616,94 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne, eta hamabi hilabeteko gauzatzeko epearekin.

547/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Lurralde Historikoko foru errepideen sareko zarataren aurkako ekintza plana.

548/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako bideak-Vías de Álava Saren kapital zabalkuntzan parte hartzea.

549/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 28ko 521/2026 Erabakian antzemandako huts zuzenketa.

550/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Foru Aldundiaren hiriarteko garraioa kudeatzeko eta kontrolatzeko zentroaren (Alavabus), eskualdeko garraioaren eta ontziratutako ekipamenduaren eta lotutako terminal eramangarrien mantentze zuzentzaile, ebolutibo, egokitzaile eta prebentiboko kontratuaren luzapena. Kontratu hori Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 16ko 432/2024 Erabakiaren bidez adjudikatu zen.

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

551/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea tokiko erakundeek eta pertsona fisikoek komunitate energetikoei atxikitzea finantzatzeko dirulaguntzen lerroa.

NEKAZARITZA SAILA

552/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Vitoria-Gasteizko udalerrian dagoen Arkatxa mendiaren onura publikoko adierazpena, eta Arabako Onura Publikoko Mendien Katalogoan sartzea.

553/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea nekazaritzako baliabide hidrikoak kudeatzeko laguntzen deialdia ebaztera bideratutako aurrekontu-esleipena handitzea. Deialdi hori Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 21eko 249/2026 Erabakiaren bidez onetsi zen.

554/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 493/2026 Erabakia aldatzea.

555/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea baso-aprobetxamenduaren 11. lotearen likidazio osagarria, Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 1eko 505/2023 Erabakiaren bidez adjudikatua.